

ENPRESA SUSTAPENeko EDO ETA ENPRESA ARLOKO ZERBITZUETARAKO TEKNIKARIEN LAN-POLTSA

Hautaketa-prozesua amaituta, Udal Elkarteko lehendakariak enpresa sustapeneko edo eta enpresa arloko zerbitzuetarako teknikarien lan-poltsa eratu du, 2014ko martxoaren 14ko ebazpenaren bidez. Hona hemen ebazpena:

ENPRESA SUSTAPENeko EDO ETA ENPRESA ARLOKO ZERBITZUETARAKO TEKNIKARIEN LAN-POLTSA ERATZEA.

Urola Kostako Udal Elkarteak enpresa sustapeneko edo eta enpresa arloko zerbitzuetako giza baliabideen hutsuneak bitarteko funtzionarioen izendapenen bidez betetzeko teknikarien lan-poltsa osatzeko oposizio-lehiaketa bideratu du. Oinarriak 2014ko urtarrilaren 24ko B14/00013 zenbakiko ebazpenaren bidez onartu ziren.

Hautaketa-prozesu horren helburua da unean-unean sor daitezkeen hutsuneak bitarteko funtzionario bidez betetzea, apirilaren 12ko 7/2007 Legearen, Langile Publikoen Oinarrizko Estatutuaren, 10. artikulua ezarritakoarekin bat etorritik. Hautaketa-prozesua bideratu eta kalifikatzeaz arduratu den Epaimahaiak onartu ditu behin betiko azken emaitzak eta lan-poltsa eratzeko proposamena egin du.

Hortaz, oinarriak eta Epaimahaiaren proposamena kontuan hartuta, nik, Urola Kostako Udal Elkarteko lehendakariak, honakoa **ERABAKITZEN DUT**:

Lehenik.- Enpresa sustapeneko edo eta enpresa arloko zerbitzuetako giza baliabideen hutsuneak bitarteko funtzionarioen izendapenen bidez betetzeko teknikarien lan-poltsa osatzea, era honetara:

| | NA | PUNTUAK |
|----|-----------|---------|
| 1 | 44132504N | 90,88 |
| 2 | 44553421Y | 81,14 |
| 3 | 44553525H | 79,15 |
| 4 | 15397472F | 67,23 |
| 5 | 44561528V | 64,89 |
| 6 | 44165130R | 62,77 |
| 7 | 44158719F | 59,45 |
| 8 | 44332325D | 58,23 |
| 9 | 44143798J | 55,39 |
| 10 | 35770840K | 52,37 |
| 11 | 44132614F | 45,39 |
| 12 | 72443904E | 42,42 |

Bigarren.- Lan-poltsaren indarraldia finkatzea. Oinarrien arabera, lan-poltsak 3 urteko iraupena izango du, lan-poltsa eratzeko ebazpena argitara ematen denetik hasita. Ebazpenaren iragarkia 2014-03-14an argitaratuko denez, lan-poltsa indarrean egongo da 2017-03-13 arte.

Zarautzen, 2014ko martxoaren 14an

Amaia Guruzeta
Urola Kostako Udal Elkarteko lehendakaria